

## 4. DIRU ITURRIAK

'StreamVerse' izeneko plataforma bat sortu nahi dugu, bertan serie eta filmen barietatea izugarria den, aukera handiekin. Beraz, gure asmoa da gure bezeroei hilabetero konpainia horietako 3 serie, 5 film eta dokumental bat aukeratzeko aukera ematea.

Ordaintzen duzun serie eta film kopurua txikiagoa denez, prezioa ere merketu egiten da. Beraz, streaming plataforma baten batez besteko prezioa hilean 10 eurokoa bada, StreamVerseren prezioa hilean 5 euro ingurukoa izan daiteke. Horrez gain, doako pelikula batzuk jar genitzake ekitaldi berezietan, Gabonak edo Halloween bezalakoak. Modu honetan, gure plataforma ordainduko zenuke, besteak baino merkeagoa izango dena, eta La Casa de Papel ikusi ahal izango duzu zure anaiak Game of Thrones ikusten duen bitartean. Horrela lehen aipatutako arazoa konpondu genezake. Zenbait pelikula eta serie bakarrik ikusi nahi badituzu, bakarrik ordaindu ahal izango dituzu, eta ez inoiz ikusiko ez dituzun ehunka serieengatik.

Horrez gain, proiektua garatu hala, plan ezberdinak eskaini ditzakegu, alokatu daitezkeen eduki kopuruaren arabera; esaterako, bezero batek telesail baino film gehiago ikusi nahi baditu, edo gutxiago ordaintzeko aukera izatea, eduki gutxiago kontratatuz. Ordainketa hauek errepikariak izano lirateke.

Bestalde, esaterako, norbaitek ez badu gure plataformara harpidetu nahi, baina film edo telesail jakin bat ikusi nahi badu, eduki jakin hori erosteko edo alokatzeko aukera eskainiko dugu, harpidetzeko beharrik gabe. Hauek ordainketa bakarreko diru-sarrerak izango lirateke.